BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-K ETA SAN TELMO MUSEOA, SA-K MATERIALEN ZAMALANEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA**
3. **LANEKO BABESA ETA UNIFORMEAK**
4. **ESKAEREN OPERATIBA ETA SISTEMA**
5. **GIZA BALIABIDEAK**
6. **TXOSTENAK**

IFK-DIPK02600211005411
6634n VI 2009-11

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA-K ETA SAN TELMO MUSEOA SA-K MATERIALEN ZAMALANEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA[1]

Kontratu honen xedea da DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOA eta, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateen jarduerak gauzatzeko eta garatzeko material eszenografikoa, museografikoa, teknikoa eta gainerako materiala kargatu eta deskargatzeko, eta muntatzeko zerbitzuak ematea, Baldintza Teknikoen Agiri honetan, Klausula Administratibo Partikularren Agirian eta bere Karatulan aurreikusitakoaren arabera.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira berariaz DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateen berezko jardueretan eta lankidetza-jardueretan erabili beharreko hornidura-kontratuaren laguntza logistikoko zerbitzuak, bai aire zabalean, bai lokal eta gainerako espazio publiko edo pribatuetan egiten diren hornidura-zerbitzuak (alokairu-erregimenean, agertokiak, hesiak, harmailak eta askotariko materiala jarri, muntatu eta desmuntatzeko erregimenean). (Espedientea: [...])

CPV kodea hau da: Zamalan eta biltegiratzen zerbitzuak (63100000-0).

Zerbitzuak emango dira entitate kontratatzaileek eskaera egin ondoren, agiri honetako **4. Baldintzan** aurreikusita dagoenari jarraikiz.

Karatulako 2. puntuaren arabera, agiri hauetan DONOSTIA KULTURA adierazten den bakoitzean hau ulertu behar da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOA dela, hiru entitate kontratatzaileetako bakoitzarekin (hots, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAREKIN, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SArekin eta SAN TELMO MUSEOA, SArekin) sinatuko diren kontratuak prestatzeko jarduketen harira eta, era berean, eskaintzarik onena hautatu eta kontratuak esleitzearen harira.

- Bereizi gabe, hiru entitatetako edozein dela (DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA), kontratu bakoitza formalizatu eta sinatzearen harira, eta kontratuak gauzatu eta suntsitzeko faseekin zerikusia duen ororen harira.

2. ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA

Kontratu honen xede diren zerbitzuak hauek dira:

a) Oinarrizko Zerbitzuak

- Enpresa hornitzaile bakoitzak ipini eta garraiatzen dituen materialen zamalanak egitea eta lekualdatzea, garraio ibilgailuetatik dagokion lekura eta alderantziz.

[1] Baldintza teknikoen agiri honetan *kontratu* aipatzen den bakoitzean, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAREKIN, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SArekin eta SAN TELMO MUSEOA SArekin sinatuko diren loteetako bakoitzaren kontratua dela ulertuko da.

IFK-DIR-02600211005411
6634n VI 2009-11

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 E. donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

- Batetik bestera lekualdatu behar diren materialak eramatea.

- Materialak leku batetik beste batera eramatea muntaketa eta desmuntaketa lanak egitean.

- Entitate kontratatzaileak eskatzen dituen ohiko muntaketa eta desmuntaketa lanetan laguntzea (kontrapisuak ipintzea, plataforma jasotzailearekin edo eskailerarekin maniobrak egitea, laguntza ikus-entzunezko ekipoen muntaketa lanetan, etab.).

- Antzoki, museo eta arte eszenikoetako zeregin osagarriak, entitate kontratatzaileak halakorik eskatzen badu.

- Muntaketa eta desmuntaketa lanen ondorioz sobera dauden materialak edo hondakinak eramatea.

b) Zerbitzu Bereziak

Horrez gain, entitate kontratatzaileek zerbitzu berezi hauek eskatu ahal izango dituzte:

- DONOSTIA KULTURAk emandako ibilgailuak gidatzea. Ibilgailu horiek gidatzen dituzten giza baliabideek B1 motako gidabaimena izan beharko dute.

- Orga jasotzailea, zezena edo "fenwicka" gidatzea, DONOSTIA KULTURAk emana.

- Altuerako lanak: Karga- eta deskarga-lanak eta materiala muntatzen laguntzeko lanak egingo dira "altuerako sarbideetan", hala nola agertokiak, 2 metro baino gehiagoko oholtzak, eskailerak, jasogailuak, etab.

Zerbitzu horiek guztiak kontu handiz egin beharko dira, materialen hauskortasuna dela eta.

DONOSTIA KULTURAk kontratistari egindako errekerimendu bakoitzean eskatutako zerbitzuen gutxieneko iraupena 3 ordukoa izango da.

3. LANEKO BABESA ETA UNIFORMEAK

Enplegatuen laneko babeserako ekipamendua (segurtasun oinetakoak, eskularruak, jantziak eta legez dagokion gainerakoa) kontratistak ipiniko du eta, ildo horretan, laneko segurtasunaren harira aplikagarria den babeserako araudia betetzea haren erantzukizuna izango da.

Era berean, kontratistak uniformea (ahal dela, galtza eta polo ilunak (beltza edo grisa) eta uretako arropa) eta norbera babesteko ekipamendua (NBE) eman beharko dizkie kontratua gauzatzeko atxikitako langile guztiei.

4. ESKAEREN OPERATIBA ETA SISTEMA

Kontratuaren xede diren prestazioak entitate kontratatzaileek eskatu ostean emango dira.

IFK-DFK-02600211005411
6634n VI 2009-11

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 E. donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Eskaera dagokion entitate kontratatzaileak egingo du, kontratistari posta elektronikoko mezu bat bidaliz. Hartan, prestazioen egunak, tokiak eta ordutegiak edo epeak zehaztuko dira, baita prestazio horietarako zenbat langile behar diren ere.

Aste jakin baterako prestazioen eskaerak aurreko astean egingo dira, ostegunean gehienez ere. Eskaera egin ondoren, kontratistak sei orduko epea izango du bide beretik erantzuteko. Mezu horren bitartez, prestazioa egingo dela berretsiko du eta hartan jardungo dutenen izena, bi abizenak eta NAN zenbakia jasoko ditu.

Salbuespenez, premiazko egoerarik suertatzen bada, entitate kontratatzaileek aurrerapen laburragoez egin ahalko dituzte eskaerak, aurreko paragrafoan adierazitakoa baino. Halakoetan, eskaerak telefonoz egingo dira. Premiazko eskaerak egin eta gero, kontratistak prestazioa emango duela berretsiko du hiru orduko epean, posta elektronikoz. Mezu horretan, hartan jardungo dutenen izena, bi abizenak eta NAN zenbakia jasoko dira. Kontratistak lehenbailehen jarriko ditu entitate kontratatzailearen esku eskatutako baliabideak; edozelan ere, delako ekitaldia edo jarduera hasi aurretik.

Entitate kontratatzaileak eskaera 24 ordutik beherako aurrerapenez egiten duenean, karatulako 7. puntuan finkatuta dagoen errekargua ordaindu beharko dio entitate kontratatzaileak kontratistari.

Ildo beretik, zerbitzuren bat eskatzen badu eta hura 12 ordutik beherako aurrerapenez bertan behera uzten bada, karatulako 7. puntuan finkatuta dagoen ehunekoa ordaindu beharko dio entitate kontratatzaileak kontratistari.

Eskaerak egin ahal izateko, kontratistak posta elektronikoko helbide eta telefono mugikorreko zenbaki bana emango dizkie entitate kontratatzaileei. Horiek kontratuari atxikiko zaizkio eta abian egongo dira urteko 365 egunetan, 08:00etatik 22:00etara gutxienez, astelehenetik igandera eta jaiegunetan.

Entitate kontratatzailek erabakiko dute prestazio bakoitzaren lan plana, kontratuaren arduradunaren bidez edo haren esku uzten diren langile teknikoen bidez.

IFK-DFK-2160021005411
6634n VI 2009-11

5. GIZA BALIABIDEAK

a) Gutxieneko giza baliabideak

Lizitatzaileek konpromisoa hartu beharko dute, gutxienez giza baliabide gisa, baldintza hauek betetzen dituen koordinatzaile bat atxikitzeko kontratua egikaritzeko:

- Gutxienez, lau urteko eskarmentua izan behar du kontratuaren xedearen antza duten zerbitzuak koordinatu eta gainbegiratzeko lanetan.

b) Giza baliabideei buruzko beste gai batzuk

Kontratua egikaritzen den bitartean, zerbitzuaren dimentsioa kontuan hartuta, kontratistak kontuan hartu behar du, baldintza-orri honetan ezarritako beharrekin bat etorriz, gehienez ere 22 langile behar direla aldi berean jazzaldia egiten den bitartean, eta, urteko gainerako aldian, 12 langile.

Gehieneko langile-kopuru orokor horretatik, aldi berean, altueran zerbitzuak eman ditzaketen 4 langile, ibilgailua gidatzeko zerbitzuak eman ditzaketen 3 langile eta orga jasotzaileak gidatzeko zerbitzuak eman ditzaketen 3 langile eskatu ahal izango dira. Langile berak hiru zerbitzu bereziak egin ahal izango ditu.

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

6. TXOSTENAK

Hileko fakturarekin batera, esleipendunak txosten bat ere bidaliko du, Excel formatuan, emandako zerbitzuen xehetasunekin.

Kontratua gauzatzen den bitartean, DONOSTIA KULTURAk txosten gehigarriak eskatu ahalko ditu, eta horrek ez dio bestelako kosturik ekarriko DONOSTIA KULTURAri.

Donostian, sinadura elektronikoaren datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2025.01.27 12:30:20 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri jauna
Kontratazio Organoa

IFK-DFK-0260-0211005411
6634n VI 2009-11